

Usurbilgo Udala

## 2016KO EKAINAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Garcia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Ezin-etorria adierazi dute:** Alaitz Aizpurua Labakak eta Carlos Perez Fraisolik.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko ekainaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.


Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### **1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO MAIATZAREN 23TIK EKAINAREN 17RA (2016/0484-2016/0602).**

Alkatetzak 2016ko maiatzaren 23tik ekainaren 17ra bitartean (2016/0484– 2016/0602) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **2.- “HARRERA TALDEA” ELKARTE ASISTENTZIALARI LOKAL BATEN LAGAPENA EGITEA.**



Usurbilgo Udala

Alkateak azalpenak eman ditu. "Harrera Taldea" elkarte asistentzialari buruz adierazi du 2012an sortutako elkarte bat dela eta preso eta iheslarien etorreran laguntzeko helburuarekin sortu zela.

Elkarte honek lau ardatz dituela aipatu du, laguntza psikologikoa, lana topatzeko laguntza, mediku asistentzia eta bestelako behar ekonomikoak dituztenean laguntza ematea.

Honakoa behin behineko eskaera bat dela esan du, izan ere aurreko legealdian Zarauzko Udalari egindako eskaera bati baiezkua eman omen zitzaion eta lokal bat eman zitzaien baina orain obra bat egin behar denez lokal horretan, hori burutu zain omen daude. Egoera hau izanik, Usurbilgo Udalari eskaera bideratu diote galdetuz ea behin behingo tarte honetarako udalak ba ote duen lokalik beraientzako.

Txaramunton AEK-k erabiltzen duen lokalean momentu honetan erabilpenik ez daukan bulego bat dagoela esan du eta urtebeterako lagapen bat egitea egoki ikusi dela.

Amaitzeko, irizpenak dituen puntuak irakurri ditu.

Fermin Orue-Echevarriak komentatu du batzordean adierazi zuen moduan jakin nahi zuela pasa den legealdian Zarautzen nola joan zen gauza. Aurreko legealdiko PSE-EEko bozeramaleak jakinarazi dionez ez zuten ez plenotik ez batzordetik pasa gai hau, soilik jakin zuten Udalak Harrera Taldeari lokal bat eman ziola. Abstenitu egingo dela esan du.

Bestalde, gustatuko litzaiokeela jakitea esan du Udalak zenbat lokal dituen eta nori utzita dauden.

Utzi behar zaien lokala momentu honetan hutsik dagoen galdetu du.

Alkateak erantzun dio lokala ez dagoela hutsik baizik eta bertan dagoen bulego bat dela hutsik dagoena. Lokala AEK-k erabiltzen duela esan du, eta hainbat bulego dituela.

Gaineratu du hasieran ez duela komentatu baina lokal baten lagapenak hainbat oinarri bete behar dituela, interes publikoarena tartean. Gaur eguneko gizarte egoeran elkarbizitzaren eta bizikidetzaren alde apustua egiten ari garen honetan, oso garrantzitsua dela uste dute horrelako elkarteek egiten duten lana, preso egon direnei gizarteratzeko laguntza eskainiz. Alde horretatik interes publikoa ikusten diotela aipatu du.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordeak egindako irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:



Usurbilgo Udala

“Esp.zk.: ID.19/2016-0307

## **Ikusirik**

2016ko maiatzaren 30ean Harrera Elkarte Asistentzialak bere eginkizunak burutzeko bulego bat eskatu dio Usurbilgo Udalari.

Usurbilgo Udalak Kale Nagusia 43an Euskaraz Kooperatiba Elkarteak 2015eko azaroaren 24an Ohiko Osoko Bilkuran egindako prekariozko lagapenaren baitan darabilen lokalean bulegotako bat libre dagoela ikusi du. Dagokion espedientean jasotako ondasun higigarrien inbentarioaren arabera, bulego horretan ez dago Udal jabetzako ondasunik.

Plenoko erabaki horretan jasotako Euskaraz Kooperatiba Elkartearekin sinatutako hitzarmenaren hamabigarren klausulan jasotakoaren arabera, “Udalak lokal hori erabilera anitzeko instalazioa izatea nahi du, horregatik, berau herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute, beti ere Udala eta Euskaraz Kooperatiba Elkartearen (AEK) arteko adostasunarekin (...)”.

Udalak Euskaraz Kooperatiba Elkartearekin hitz egin du, eta libre dagoen bulegoa Harrera Elkarteari prekarioz lagatzeko adostasuna lortu dute.

Bestalde, Udal Idazkariak prekariozko lagapena egiteko prozedurari buruzko txostena eman du.

## **Kontuan harturik**

- Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badoa.
- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- Usurbilgo Udaleko irabazi asmorik gabeko elkarten erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005-08-18)

2016ko ekainaren 22an egindako Antolakuntza Batzordean ebazpen-proposamen honen bozketak emaitza hau izan zuen:

Aldeko botoak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta.

Abstentzioa: Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria.



Usurbilgo Udala

Honenbestez, Antolakuntza Batzordeak, gehiengoz, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Usurbilgo Udalak “Harrera Taldea”ri prekarioz Kale Nagusia 43an kokatutako bulego baten (6.bulegoa) lagapena onartzea.

**Bigarrena:** Prekariozko lagapenaren iraupena urtebetekoa izango da, Harrera elkarteak eskatu eta Udalak espresuki onartuta urtebetez luzagarri izango dena.

**Hirugarrena:** Prekariozko lagapen honen indarraldia, dagokion organoak onartu eta hurrengo egunean hasiko da.

**Laugarrena:** Hitzarmenaren berri interesatuari, Euskaraz Kooperatiba elkarteari (AEK) eta udal-ondare arduradunari emango zaio.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.


Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

### 3.- MOZIOA: MANDELA ARAUAK.

Alkateak mozioari buruzko azalpenak eman ditu.

Mozioa Antolakuntza batzordean aztertu zela esan du. Mandela Arauak izenez ezagutzen direnak Nazio Batuek onartutako 122 arau direla eta horietan presoan eskubide unibertsalak zeintzuk diren zehazten direla esan du. Mozio honetan proposatzen dena da eskubide horiek Udal honek onartzea eta bere egitea.

Aurretik ematen diren azalpenetan fokoa jartzen dela dio badirela horietako arau batzuk gaur egungo euskal presoan politika penitentziarioan aplikatzen ez direnak, esate baterako 122. araua aipatzen da, non esaten den preso guztiak euren duintasuna eta gizaki bezala duten berezko balioagatik merezi duten tratamendua jasoko dutela eta horren haritik kartzela erregimena bideratuta dagoela kartzela bizitza eta askatasuneko bizitzaren arteko tarte minimora gutxitzera. 59. araua ere aipatzen dela esan du non esaten den ahal izanez gero presoak bere etxetik eta birgizarteratze lekutik gertu egongo direla. 44. araua ere aipatzen dela esan du non isolamenduari



Usurbilgo Udala

buruz esaten den soilik salbuespenezko kasuetan ezarriko dela azken errekurtsio gisa, ahalik eta denbora gutxienez eta errebisio independente baten menpe.

Amaitzeko mozioaren puntuak irakurri ditu.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta batzordean eskatu zuen moduan puntuak banan banan bozkatzea eskatu du. Aipatzen diren 122 arauetatik Espainiako legean zenbat txertatu diren eta zeintzuk diren ez dakiela esan du. Alkateak esan duen moduan eskubide hauek unibertsalak dira eta estatuko espetxeetan seguru hobeto bizi daitekeela, baina leku batean edo bestean ez dela berdina azpimarratu du, hori dela eta, laugarren puntuarekin ados dagoela esan du baina beste hiruretan abstenitu egingo dela.

Alkateak adierazi du mozioa puntuz puntu bozkatuko dela.

Mozioa puntuz puntu bozkatu dute:

1. puntua gehiengoz onartua izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

2. puntua gehiengoz onartua izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.


Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

3. puntua gehiengoz onartua izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

4. puntua aho batez onartua izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordean aztertua izan zen mozioa onartu dute, honela dio testuak:

“2015eko abenduaren 17an Presoak Tratatze Oinarrizko Arauak onetsi zituen, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak, izen sinboliko bat emanez: Mandela Arauak. Horrela, arautegi hau bultzatu duten Estatuak omenaldia egin nahi diote 27 urtez kartzelaratuak preso politikoari eta ostean Hegoafrikako Presidentea izan zen Nelson Mandelari, giza eskubideen alde, berdintasuna, demokrazia eta bakearen kulturaren aldeko bere ondarea goraiatuz.

Mandela Arauak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak aintzat hartzen ditu eta kartzela politika ezartzeko orduan, presoek giza eskubideak babesteko norabidean, eragin eta balio handia dute. Azpimarratzekoa da Mandela Arauek, Tortura eta bestelako *tratu edo zigor anker, gizagabe edo* iraingarrien Hitzarmena hartzen dutela oinarritzat.

Izaera unibertsala eta indar inperatibo eta loteslea izatea helburua duten 122 arau hauek, ondoko oinarrizko printzipioa ezartzen dute: “preso guztiak, euren duintasuna eta gizaki bezala duten berezko balioagatik merezi duten tratamendua jasako dute”. Horren haritik, “kartzela erregimena bideratua dago kartzela bizitza eta askatasuneko bizitzaren arteko tartea minimora gutxitzera” adierazten du, horretarako kartzelako baldintzak duinak izan daitezzen katalogo bat agertuz.

Mandela Arauek, besteak beste, presoek osasun tratamendu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidea ere aldarrikatzen dute. Zehazki *59.garren arauak zera adierazten du: “posible den neurrian, presoak bere etxetik edo bergizarteratze lekutik gertu egongo dira”*. NNBBen arau hauen 44garrenak agintzen duenez, isolamendua, “soilik salbuespeneko kasuetan ezarriko da, azken errekurtsio gisa, ahalik eta denbora gutxienez eta errebisio independente baten menpe”.

Euskal presoek esperientzian ez da horrela suertatzen: isolamendua sistematikoa bihurtzen da, zigor ohiko eta arrunta da, aplikazio arbitrarioa duena. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen ditu. Azken egun hauetan horren testigantza zuzena jasotzen ari gara: muturreko isolamendu kasuen zerrenda luzea ezagutzen dugu, Arantza Zulueta, Harriet Iragi, Juan Ramón Carasatorre, Aritz Arginzoniz, Juan Carlos Besance, Bittor Franco, Xabier García Gaztelu, Fernando García Jodrá, Sebas Lasa, Iker Lima, Angel López Anta, Aitzol Maurtua, Iker Olabarrieta, Patxi Ruiz, Nerea Bengoa, Irantzu Gallastegi, Gurutz Agirresarobe, Iker Arakama, Rufino Arriaga, Asier Arzallus, Juan Mari Etxebarri, Garikoitz Etxeberria,



Usurbilgo Udala

Jesus Goikoetxea, Roberto Lebrero, Iñigo Vallejo... zerrenda luzea da. Beste aldetik, ezaguna da duela aste batzuk Fresneseko espetxean isolamenduagatik piztutako gatazka eta tentsioa, horren ondorioz gose greba bateko protesta eragin duena. Nazio Batuek gonbidapen bat luzatzen dute: Nelson Mandelaren Nazioarteko Eguna, uztailak 18ro ospatzen dena, Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna izan dadin, gartzelaratzeko baldintza duinak bultzatzeko eta presoak ere gizartearen parte direla agerian uzteko.

Hori dela eta, Udal honek ondokoa erabakitzen du:

- Udal honek bat egiten du Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatze Oinarrizko Mandela Arauekin.
- Udal honek, Euskal Presoei Mandela Arauak aplika dakizkien eskatzen du, besteak beste, gaixo dauden presoek tratu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidearen haritik, dispertsioarekin amaituz.
- Udal honek, Mandela Arauak oinarritzat harturik, zigor ohiko eta arrunt bezala, muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuiatzen du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen dituela kontuta izanik, egoera hau pairatzen duten presoekin elkartasuna adierazten du udal honek.
- Nazio Batuen gomendioa jarraituz, , uztailaren 18a Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzen dugu, kartzelaratzeko baldintza arbitrarioen kontra agertuz eta presoak gizartearen parte ere badirela aldarrikatuz.”

#### **4.- MOZIOA: ANIZTASUN ETA IDENTITATE SEXUALEAN ALDEKO ADIERAZPENA.**

Alkateak adierazi du justu gaurko eguna, ekainaren 28a, mundu osoko LGTBI kolektiboaren eguna dela.

Mozio honek ez duela azalpen gehiegirik eskatzen esan du baina azaldu du gaur egunean gure gizartearen oraindik jarrera eta portaera homofoboak presente daudela, nahiz eta diskurtsoen mailan aurrera egin dugun eta beharbada gizartearen kontzientziazioan ere aurrera egiten ari garen. Egoera honek elkartasun mezuak zabaltzera behartzen dituztela azpimarratu du eta baita eskubide horien defentsan denok jarrera aktiboa edukitzera ere.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordean aztertua izan zen mozioa onartu dute, honela dio testuak:

“Ekainaren 28an mundu osoko kaleak, Euskal Herrikoak ere bai, kolorez eta aldarrikapenez jantziko dira LGTBI kolektiboaren hamarkadatarako borroka



Usurbilgo Udala

nabarmenezko. 2016. urtean 47 urte beteko dira Stonewalleko (New York) matxinadatik. Egun hau askatasun sexualaren mugimenduaren baitan berezia da oso, erakunde politiko, polizial eta erlijiosoek lesbianen, gayen, bisexualen, trans eta intersexualen aurka ezarritako errepresioaren kontra egiteko mugarri izan baitzen.

Orduko mobilizazioek sexu askatasunaren aldeko antolakuntza bultzatu eta lanerako indarra eman bazuten ere, 47 urte geroago diskriminazio egoerak ez dira amaitu. Are gehiago, zenbait kasutan bestelako diskriminazio egoerekin batu dira eta baztertze egoera larrietan utzi ditu lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualak. Kapitalismoak eragiten dituen diskriminazioei beraz, eredu matxista eta patriarkalaren bazterketak gehitu zaizkie, pertsona guztien, eta bereziki pertsona LGBTBlen ongizatea kinka larrian jarriz.

Besteak beste, honelako kasuak bizi ditugu egun Euskal Herrian: inmigrante ez heterosexualak; pobrezian bizi diren emakume lesbianak; beltzak eta transexualak direnak; familia nuklearrean oinarritutako bizi ereduarekin bat egiten ez duten pertsonak; generorik gabeko identitateak dituztenak; etab. Arrazoi ezberdinengatik dira diskriminatuak pertsona hauek: arrazoi sozioekonomikoengatik eta baita genero arrazoiengatik ere.

Izan ere, Hego Euskal Herrian oraindik ere homofobia, lesbofobia eta transfobiaren erasoak egunerokoak dira: kaleko eraso fisiko zein ahozkoak, euskaltzaindiaren generoaren araberrako izenen katalogazioa, familia eredu bakarraren inposizioa eskubideak bermatzeko, liburu eta eduki multimedia sexista, etab.

Egoera internazionalari so eginda, gero eta herrialde gehiago dira sexu askatasunaren aurka mota ezberdinetako legediak onartu dituztenak, hau giza eskubideen kontrakoa bada ere.

Azkenengo homofobia erasorik bortitzena pasa den igandean bizi izan genuen Orlandon. Erasotzaile bakarra izan bada ere, gizarte eredu oso baten arazoa da honako kasua, homofobia erasoak esparru guztietan bizi bait ditugu. Izan ere, Orlandon ia 50 hildako izan dira, baina nazioartean egunerokoan bizi ditugu eraso homofoboak; gizarteko esparru ezberdinetatik zein legedia kriminalizatzaileetatik.

Horrengatik, elkartasuna ardatz izango duen kontzientzia aldarrikatzen dugu, jarrerak aldarazi eta LGBT kolektiboarekiko aurreiritziak, fobiak eta gorrotoak desagerraraziko dituen, alor guztietan ezinbestekoak diren lege eta gizarte aldaketak eginda: hezkuntzan, osasungintzan, komunikabideetan edota herritar askatasunetan. Horretarako ezinbestekoa izango da ahalduntze politikak bultzatzeta gizarteko sektore ezberdinetan.

Guzti honengatik, politika instituzionalak pertsona lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibil oro babesteko norabidean joan behar dira, oinarritzko askatasun printzipioaren baitan.

Era berean, hauen aurkako eraso, jazarpen edota errepresio oro gaitzetsi eta salatzen jarri behar du, eta horrelakoak errepika ez daitezzen, bere eskura





Usurbilgo Udala

dituen baliabide guztiak erabili beharko lituzke, prebentziorako, detekziorako, asistentziorako eta laguntzarako protokolo baten lanketa egiteko.

Pertsona askeek osatutako herri askea eraikitze bidean, Euskal Herriko herri eta hiri desberdinetan antolatutako mobilizazioekin bat egitera deitzen du Usurbilgo Udalak.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

## **5.- MOZIOA: USURBILGO INGEMARREKO LANGILEAK GREBAN.**

Hasteko, alkateak ongietorria eman die aretoan dauden Ingemarreko langileei.

Alkateak mozioa irakurri du.

Jarraian, hitza eman die gainerako batzarkideei.

Josune Urkolak adierazi du ados daudela mozioarekin eta elkartasuna adierazi die langileei.

Fermin Orue-Echevarriak ere ados dagoela adierazi du eta, era berean, adierazi du gaur eguerdian korreo bat bidali diola Diputatu Nagusiaren ordezkoiari, Denis Itxasori, gai honi jarraipena egiteko eskatuz eta informazio berririk duenean jakinarazi diezaiola eskatuz.

Alkateak adierazi du Udalak mozio hau aho batez onartzea inportantea dela.

Jarraian, langileei hitza eman die.

Langileen ordezkariak hitza hartu du eta hasteko langile guztien izenean eskerrak eman dizkie.

Jarraian, adierazi du bihar bilera bat dutela eta bertan parte hartuko dutela enpresak, inbertsoreak, Foru Aldundiak, Ikei-k, alkateak eta langileek. Bertan inbertsoreak bere plana zein den aurkeztuko duela esan du eta horren aurrean langileen posizioa zein den adieraziko dutela. Esperantza gutxi dutela gaineratu du, ikusita inbertsore honek beste enpresa batzuetan egin duena, ez baita izan inbertsore enpresarial baten



Usurbilgo Udala

papera, espekulazailerik batena baizik. Zoritxarrez hau dela inbertsore bakarra esan du, aurretik egin ziren ahaleginak pikutara joan baitziren.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordean aztertua izan zen mozioa onartu dute, honela dio testuak:

“Egunetik egunera ikusten ari gara nola multinazionalen eta talde handien esku geratu diren enpresak ixten ari diren. Gure sare industrialak kolokan dago, kanpotik etortzeko kapitalak epe motzeko etekinei lehentasuna ematen dielako, bertako baloreak eta lan egiteko moduak aintzat hartu gabe.

Zoritxarrez, Usurbilen ere badugu horrelako adibide mingarria. Ingemar Taldeko Usurbilgo plantak okerrera egin du azken urteetan, eta gaur egun bere etorkizuna kinka larrian dago. Okerrerako ibilbide horretan, enpresa burujabe izatetik talde handi baten parte izatera pasa zen. Usurbilen jaiotako enpresaren zuzendaritza Galiziara desplazatu zen. Galiziako zuzendaritza-taldea ez da gai izan, ordea, irtenbide sendo eta eraginkorrik aktibatzeke, eta bertako akzionistek ez dute apustu garbirik egin enpresa biziberritzeko. Gauzak horrela, Usurbilgo planta aurrera egin ezinik geratu da.

Gainbehera honetan, langileek pairatu behar izan dituzte egoera larriaren ondorioak, benetan latzak: despidoak, enplegu-erregulazioko espedienteak, soldata jaitsierak, eta abar. Urte gutxian, 150 langile izatetik 75 izatera pasa da. Zuzendaritzak konpromisoa eskatu die langileei behin eta berriz, eta hauek ardura, borondate ona eta jarrera positiboa erakutsi dute, diru-ekarpenak eta guzti eginez.

Enpresaren egoera aztertu dutenek diotenez, egoera zail honetatik ateratzeko aukerak badaude, baina konpromisoa eta berraktibatze-plan serioa behar da.

Azken hilabeteetan inbertitzaile fidagarri bat erakartzeko saiakerak egin dira, baina ez da lortu orain arte.

Gauzak horrela, langileek grebara jo dute ezinbestean, beren egoera salatzeko, irtenbide duin bat eskatzeko, eta Usurbilgo Ingemar ezin dela itxi ozen esateko.

Usurbilen jaiotako Ingemar enpresa ixtea Usurbilgo herri osoaren galera da, eta, beraz, herri gisa erantzun behar diogu arrisku horri. Horregatik, udaleko EHBildu taldeak, honako puntuak onartzea eskatzen dio Udaltzari:

1. Usurbilgo udalak elkartasuna eta animoa helarazi nahi die langileei, eta ahal duen neurrian laguntzeko konpromisoa hartzen du.
2. Agente guztiei eskatzen diegu arduraz jokatzeko, bereziki enpresaren akzionistek eta zuzendaritzari. Inork ezin du bere erantzukizuna ezkutatu.
3. Premiazkoa da bideragarritasun-plan sendo bat diseinatzea eta aktibatzea. Plan horren diseinuan parte hartzeko aukera eman behar zaie langileei, eta beraiekin adostu behar da. Era berean, beharrezkoa da administrazio publikoaren inplikazioa, plan hori aurrera ateratzeko eta inbertitzaile baten bilaketa errazteko.



Usurbilgo Udala

4. Plan horrek Usurbilgo plantaren etorkizuna bermatu behar du, bertako enpresaren izaera zainduz, eta ez kanpoko interesei men eginez.
5. Plan horretan langileen baldintzak eta eskubideak errespetatu egin behar dira.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

## **6.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Amaitzeko alkateak aste honetan izango diren Santixabel jaiak ondo pasatzea opa die gainontzekoei.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:25ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**